

9

Argibideak

ADITZA

AGINTERA			GEROA	
Ø	bat	batzuk	bat	batzuk
BOTA	bota ezazu	bota itzazu	botako duzu	botako dituzu
MOZTU	motz ezazu	motz itzazu	moztuko duzu	moztuko dituzu
JARRI	jar ezazu	jar itzazu	jarriko duzu	jarriko dituzu
MARGOTU	margo ezazu	margo itzazu	margotuko duzu	margotuko dituzu
ITSATSI	itsats ezazu	itsats itzazu	itsatsiko duzu	itsatsiko dituzu
ZURITU	zuri ezazu	zuri itzazu	zurituko duzu	zurituko dituzu
LOTU	lot ezazu	lot itzazu	lotuko duzu	lotuko dituzu

HIZTEGIA

IZENAK				
ale	estalki	irabiagailu	marrubi	tresna
arantza	ezti	irabiaki	mazedonia	txistor
atal	gatz	kartoi mehe	nahasketa	urdaiazpiko
azal	gune	koilarakada	oihal	xerra
buztin	hari	lapiko	osagai	xukadera
eskukada	hozkailu	mikrouhin	plater	zartagin
eskulan	inbutu	pinaburu	poto	zuku

GALDERAK
Zer egingo duzu?
Nola egingo duzu?

JOSKERA
zatitan
aletan
laurdenetan
xerratan

ARGIBIDEAK AZTERTZEN



IRAKURRI eta IKASI

POTO APAINGARRIAK

Eskulan honekin poto polit-politak egingo dituzu zure logelan edo etxe osoan zehar ipintzeko

MATERIALA:

- Klarion berdea, gorria, horia, urdina, morea eta gorria
- Gatza
- Poto bat
- Kartoi mehea edo papera
- Oihal estanpatu polit bat
- Sei edalontzi

PAUSUAK:

1. Sei edalontzitan gatza botako dugu, bete arte.



2. Edalontzi bakoitzeko gatza paper batera botako dugu eta koloreztatuko dugu kolore batez; gero gatza bere edalontzira berriz botako dugu.



3. Orain, behean joango den kolorea aukeratuko dugu. Gero, paperarekin inbutu antzeko bat egingo dugu, eta gatza potoan sartzen hasiko gara.



4. Pixkanaka gatza potoan erortzen utziko dugu, mendiak eratuz; koloreak txandakatu beharko ditugu politago geratzeko.



5. Bukatzeko, potoari estalkia jarriko diogu, barruko gatza ez erortzeko. Horretarako oihal estanpatua hartuko dugu eta goma batez oihala eutsiko dugu.





OSATU taula eta IKASI

Zer esaten digu testu honek?	
Zenbat atal azaltzen da testuan?	
Zeintzuk dira atal horiek?	
Zer azaltzen da hirugarren atalean?	
Zein formatan daude idatzita argibideak?	

Aurreko testua irakurri ondoren, aipatu argibideak labur-labur eta ordenan


BOTA gatza edalontzietan	
BOTA edalontzi bateko gatza paper batean	
EGIN inbutu bat paperaz	
JARRI estalkia potoari	



BANANA IRABIAKIA

OSAGIAK

Litro bat esne
3 jogurt
3 banana
4 koilarakada ezti
Intxaur muskatua



TRESNAK

Irabiagailua eta ontzia
Mikrouhin-labea
Edalontzia eta koilara
Hozkailua

NOLA EGIN?

1. Bota itzazu
irabiagailuaren ontzira
esnea, banana zatituak eta
jogurtak.



2. Bero ezazu ezti
apur batez
mikrouhin-labean.



3. Bota ezazu ezti
berotua esnea,
banana zatiak eta
jogurtak dauden
ontzira.




4. Irabia ezazu
ontziko nahasketa
guztia ongi.



5. Gehi ezazu esne
apur bat gehiago.
irabiakia leuna gera
dadin.



6. Utz ezazu
hozten hozkailuan
denbora batez.



7. Azkenik, bota
ezazu irabiakia
edalontzi batera eta
hautsezta ezazu
intxaur muskatu apur
bat.






OSATU taula eta IKASI

Zer esaten digu testu honek?	
Zenbat atal azaltzen da testuan?	
Zeintzuk dira atal horiek?	
Zer azaltzen da bigarren atalean?	
Zer azaltzen da hirugarren atalean?	
Nola hasten dira laugarren ataleko esaldiak?	

Behatu objektu hauek eta esan zein den osagaia eta zein tresna

			
espagetiak	lapikoa	platera	tomatea
			
txistorra	urdaiazpikoa	xukadera	zartagina



IRAKURRI eta IKASI

ITSAS TRIKUAREN ARANTZAK SARTUZ GERO...

Ziztatutako gunea ur ugariz garbitu eta arantzak kontu handiz aterako dira. Ondoren, xaboia edo beste edozein desinfektatzaile erabiliz, gune hori desinfektatuko da. Zauria mingarria bada, ur berotan bustitako zapiak jarriko dira gainean. Alergiaren bat azalduz gero, zauritutakoa sendagilearengana eramango da.



OSATU taula eta IKASI

Zer esaten digu testu honek?	
Zenbat atal azaltzen da testuan?	

Aurreko testua irakurri ondoren, aipatu argibideak labur-labur eta ordenan

Ur ugariz garbitu	

ARGIBIDEAK IDAZTEN

JARDUERA



ESAN eta IDATZI argibideak ordenan

MAZEDONIA



OSAGIAK

Sagar bat, udare bat, 2 banana, pinaburu erdi bat, meloi gozo erdi bat, eskukada bat marrubi, 2 kiwi, 2 laranja, 2 limoiren azala birrindurik, 2 laranjaren zukua

Bukatzeko, bira batzuk eman, nahasi eta freskatzen utziko dugu guztia hozkailuan.

Ondoren, fruta guztia ontzi handi batean batu eta gero limoi azal birrindua eta laranja zukua erantsiko ditugu.



Lehenik, fruta guztia zuritu eta dadotan, aletan edo xerratan zatituko dugu.

Gero, marrubiak laurdenetan ebaki eta erantsiko ditugu.



Bananak azkenerako utziko ditugu, ez iluntzeko.



1	
2	
3	
4	
5	

JARDUERA



IRAKURRI argibideak eta MARRAZTU eta MARGOTU irudiak

ESPAGETIAK TOMATEAREKIN	Osagaiak - Espagetiak - Urdaiazpikoa - Txistorra - Tomate saltsa
Lehenik, sua piztu eta gainean lapiko bat jarriko dugu ura eta gatzarekin.	Urak irakiten duenean, espagetiak botako ditugu.
Handik 10-15 minutura espagetiak atera eta ura kenduko diegu.	Ondoren zartagin batean olioak botako dugu eta txistorra eta urdaiazpikoa frijituko ditugu.
Gero, zartaginera tomate saltsa botako dugu eta txistorra eta urdaiazpikoarekin nahasiko dugu.	Azkenik, 10 minutu geroago nahasketa espagetiari botako diegu eta jateko moduan egongo dira.

JARDUERA



ESAN eta IDATZI eman beharreko pausoak

ESKUMUTURREKOAK ETA LEPOKOAK




MATERIALAK


- Buztina
- Ura
- Haria
- Koloretako tenperak
- Arkatza













IRAKURRI eta IKASI

ARGIBIDEAK

Agintera	Geroa
EBAKI ezazu oihala guraizez	Oihala guraizez EBAIKO duzu
GARBI ezazu ondo azala	Azala ondo GARBITUKO duzu
BERO ezazu esnea sutan	Esnea sutan BEROTUKO duzu
SAR itzazu piezak labean	Piezak labean SARTUKO dituzu

ARIKETAK



ESAN eta EGIN ariketak

Jar itzazu zatiak ontzian	
Itsats itzazu begiak buruan	
Bota ezazu ura lapikoan	
Motz itzazu irudiak ertzetik	
Toles ezazu papera marratik	
Marraz itzazu eskuaren atalak	
Lot itzazu sokaren muturrak	
Irabia ezazu fruta jogurtekin	
Margo itzazu harriak berdez	
Zati ezazu papera lau zatitan	
Zuri itzazu sagarrak	
Erants ezazu koilarakada bat ezti	